

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Bere balio-proposameneko eskaintza garatu, bezeroengana iritsi, haiekin harremanak izan eta diru-sarrerak sortu dira funtsezko elementuak enpresa bati ahalbidetzen diotenak. Eta proiektu bat arrakasta izan dezan funtsezkoak dira gure baliabide ukigarri eta ukiezinak zein diren xehatzea.

Hau kontuan hartuta, gure enpresaren funtsezko baliabideak hiru multzotan sailkatuko genuke. Lehenik baliabide fisikoak izango ziren, hau da, lanerako garajea, ordenagailua, telefonoa, diseinuak egiteko materiala (oihalak, botoiak...), lokala eta makinak. Ondoren, baliabide intelektualei eta giza baliabidei erreparatuz Nahiaren sormenarekin, Jimenak dauzkan diseinatzeko ezagutzekin eta trebetasunarekin, Arratek dauzkan informatikako ezagutzekin, Iraidek dauzkan salmentetarako abileziarekin eta Anek dauzkan antolaketarako abileziarekin enpresa arrakastatsua izango litzateke. Eta azkenik, finantza-baliabideak izango ditugun aurreziak izango lirateke, edo beharrezkoa bada mailegua bat eskatuko genuke.